

JOSE ANTONIO ZAMALLOA
Bizkaiko Sagardogile Elkarteko lehendakaria



IMANOLOTEGI / ARGAZKI PRESS

Oso negu luzea izan dugu. Sagardoa oraintxe dago onenean eta denboraldia beste hilabete luza- tzea ez litzateke zentzugabea izango. Baina Bizkaiko sagardo- tegi gehienak txikiak dira eta, horregatik, elkartearen helburua sagardo botilak sustatzea da, urte osoko kontsumoa.

Zenbat sagardo ekoitzi du- zue? ☉ Aurten 240.000 litro, joan den urtean baino zertxobait gutxiago. Lehengai falta izan dugu. Sagarraren ziklo naturala da. Urte batean asko izaten bada, hurrengoan segur aski kopurua txikitu egingo da. 2007ko sagardo garairako gorakada bat espero dugu.

Zuen sagardoa Bizkaiko sa- garrarekin eginga dago? ☉ Bai. Guk Bizkaian landatutako sagardo sagarrak protagonismoa izan dezan nahi dugu. Baina praktikan gauzak ondo egiten ditugula eta sagar horrekin lortuta- ko ekoizpena errentagarria dela frogatu behar da. Pausoak ondo emanaz gero, azken helburua gu- re sagardoak nolabaiteko izen- dapan bat lortzea izango litzate- ke. Horretarako, tokian tokiko produkzio prozesuak arautu be- harko lirateke. Azkenean, guk ar- gi dugu bidea hori dela eta gau- zak denborarekin egin behar di- rela.

«Gure helburua sagardo botilak sustatzea da»

Bizkaiko Sagardogileen Elkarteak 12 urte daramatza Bizkaiko botilako sagardoa merkaturatzeko lanean

☉ 70eko hamarkadan, Eus- kal Herriko sagardoak izan zuen goraldiak Gipuzkoan izan zuen oihartzuna batez ere. Baina sagardoa Euskal Herri osoko baserrietan egin eta eda- ten zen aspaldi. Orain, Bizkaiko 12 sagardogilek Bizkaiko sagra- doa bultzatzeko bideak zabal- tzen ari dira.

Elkartea jaio zenean, nola zegoen Bizkaiko sagardoa? ☉ Egoera nahiko txarra zen, kos- taldeko zona jakin batzuetan izan ezik produktua galdua zegoelako. Jendeak ez zuen eza- gutzen. Elkartearen lehen hel- burua zegoen ekoizpen apurra biltzea eta berriari bultzada ematea zen. Honela produktua

berreskuratu nahi genuen, eta horretan gabilta. Pixkanaka, Bizkaiko sagardoa lekua egiten ari da merkatuan.

Nolako izan da aurtengo sagardo garaia Bizkaian? ☉ Ona. Baina kontuan izan behar da oso ekoizle gutxi garelara eta bizkaitarrek ez dutela gipuzkoa-

rek bezainbeste sagardotegieta- rra joateko ohitura. Guk geure bu- rua ezagutarazten dugun heine- an bezero kopurua ere handitzen doa. Pixkanaka bezero gehiago ezagutzen ari gara eta hori seina- le ona da.

Zergatik iraun du hainbeste aurten sagardo garaia? ☉

Ba al dago ezaugarriren bat Bizkaiko sagardoa bestee- tatik bereizten duena? ☉ Gure sagardoa zer edo zertan desberdinu daiteke Gipuz- koako edo Asturiakoarekin al- deratuta. Baina guztiek para- metro berberekin ekoitzen du- gu sagardoa. Erabilitako sagra motaz hitz egiten badugu, ez dago alde handirik. Gehienok sagra mota ezberdinak era- biltzen ditugu. Gainera, badau- de gutxi gorabeherako arau lortzeko erabili beharreko sagra- rrek zeintzuk diren aukeratzeko. Gure kasuan, Bizkaian lan- datutako sagra erabiltzen dugu, edozein motatakoa dela ere, eta badago berezitasunak aurkitzea. Baina denborarekin sagardo ezberdinak berdintzen ari dira.



Bizkaiko Sagardogileak

- 1 **Laka-Erdi Sagardoa**
Juan Amallobieta Arriola
Laka-Erdi baseria. Milloi auzoa
48710 Berriatua
Tel.: 94 613 91 78
- 2 **Leartibai Sagardoa**
Okamika auzoa
48289 Gizaburuaga
Tel.: 94 684 20 26
- 3 **Erdikoetxe Sagardoa**
Andoni Ojanguren Zorroza
Goltziotza, 36
48196 Lezama
Tel.: 94 457 32 85



- 4 **Axpe Sagardoa**
Jose Antonio Bilbao Ibarluzea
Axpe baseria
48270 Markina-Xemein
Tel.: 94 616 82 85

- 5 **Sebastianeko Sagardoa**
Anton Aresti Eiguren
Sebastianeko baseria
48289 Mendexa
Tel.: 94 684 26 42
- 6 **Malgazarraga Sagardoa**
Maribel Abajo
48110 Gatika
Tel.: 94 676 24 19
- 7 **Isasi Sagardoa**
Isasi Arieta Rufino
Juan Kaltzada, 65
48300 Gemika
Tel.: 94 625 10 69
- 8 **Etxebarria Sagardoa**
Ixar Etxebarria
Txone-bari baseria. Igartua auzoa
48110 Gatika
Tel.: 94 674 20 10
- 9 **Kandi Sagardoa**
Sat Kandi
Ametzebarri baseria
Ugarte auzoa, 40
48392 Muxika
Tel.: 94 625 80 40
- 10 **Uxarte Sagardoa**
Jose Antonio Zamalloa
48340 Zornotza
Tel.: 94 630 88 15
- 11 **Lapurriketa Sagardoa**
Lapurriketa auzoa
48141 Dima
Tel.: 94 633 80 39